

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
NEREA YEREGUI BALDA
ANDER PRADOS OTAMENDI
IGOR OTERMIN EGUIA

BERTARATU EZ DIRENAK

AITZIBER OTAMENDI ECHARRI

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2025eko maiatzaren 28an arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2025-04-30EKO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2025-04-30eko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Juan Manuel Garmendia Goikoetxea

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko maiatzaren 5ean, 21/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Juan Manuel Garmendia Goikoetxeari Beteluko 2. Poligonoko 4. Lurzatian 15 oilorentzako etxeko abeltzaintza-instalazioa jarduera kaltegabea jartzeko baimena ematea.

2. Maria Josefa Apalauza

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko maiatzaren 6an, 22/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Maria Josefa Apalauza Echarriri hirigintza lizentzia ematea Beteluko gure etxean fatxadak margotzeko.

3.- Francisco Javier Mindeguia

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko maiatzaren 6an, 23/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Francisco Javier Mindeguiari Beteluko 1. Poligonoko 14. Lurzatian 15 oilorentzako etxeko abeltzaintza-instalazioa jarduera kaltegabea jartzeko baimena ematea.

4. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko maiatzaren 14an, 24/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025eko apirilaren 30ean egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak eta akordioak ordaintzea.

5. Ainhoa Beraza

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko maiatzaren 15ean, 25/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Ainhoa Beraza Elizondori ekainaren 30etik abuztuaren 1era, Indianoetxeko gela, frontoia eta patioa erabiltzeko baimena ematea goizean zehar Euskara zerbitzuak Dindaia Fundazioarekin batera antolatu dituen jolas tailerretarako.

6. Ainhoa Beraza

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko maiatzaren 15ean, 26/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Ainhoa Beraza Elizondori Mailope aldizkariak antolatu behar dituen bi lan saioetarako Beteluko udaletxeko batzar gela erabiltzeko baimena ematea, maiatzaren 20 eta 27rako 18:30etik 20:30era.

7. Beteluko jai batzordea

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko maiatzaren 22an, 27/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Festetarako ekitaldi ezberdinetarako, herriko plaza, frontoia, eskolako futbol zelaia eta parke ingurua, udalaren altaboz portátil eta proiektorea, argiteriaren argindarra eta udaletxeko Oihukako gela erabiltzeko baimena ematea Beteluko jai batzordeari.

3. HAUR HEZKUNTZAKO ZERBITZUAREN KUDEAKETA BETELUKO "SORGINTXO HAUR ESKOLA" HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO IKASTETXEAN

Beteluko Udalaren asmoa da Beteluko "Sorgintxo Haur Eskola" haur Hezkuntzako Lehen Zikloko Zentroko haur hezkuntzako zerbitzuaren kudeaketa esleitzea, Beteluko Antigua kaleko 5. zenbakiko behealdean.

Zerbitzua kudeatzeko kontratua esleitzeko hasitako kontratazio-espedita aztertu da.

Honako hau erabaki da:

1. Administrazio-klausula zehatzen agiria eta baldintza teknikoaren agiria onartzea.
2. Kontratazio-mahai hau izendatzea, zerbitzua kudeatzeko kontratua esleitzeko proposamena egiteko:

Presidentea: Lorenzo Zubillaga Goicoechea jauna

Mahaikideak:

- Ainhoa Iriarte Gorostegui Laskurain Ikastolako irakaslea.
- Cristina Val Sardon, Beteluko Udaleko zinegotzia.
- Igor Otermin Eguia, Beteluko Udaleko zinegotzia.

Mahaikide-idazkaria: Joanes Aleman Olo

4. JASOTAKO IDATZIAK

1. – Itziar Iribarren

Itziar Iribarren Estangak, Beteluko hilerrian Manuel Iribarren Ochotorenaren eta María Pilar Estanga Artolaren hilobietan lapidak jartzeko baimena eskatu du.

Hau ikusita, udalbatzak ONARTU DU:

- 1.- Eskara onartzea eta beraz Manuel Iribarren Ochotorenaren eta María Pilar Estanga Artolaren hilobietan lapidak jartzeko baimena ematea.

5. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Iberdrola	F. Urberoa	7,99 €
Iberdrola	F. Udaleko pisua	10,15 €
Geserlocal	F. Apirileko kontabiltate	441,98 €
Sgae	F. 2025eko gastua	761,24 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa	197,02 €
Wikai	F. Apirileko gastua	112,10 €
Goener	F. Udaletxea apirila	752,50 €
IDM Medical	F. Apirileko mantenua	131,07 €
Rodriguezpeleta	F. pil 2025 (20255-22)	2.640,36 €
Venus Campos Walsh	F. DFA_41	2.833,41 €

Repsol	F. Gasoila	89,52 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa	388,76 €
Rodriguezpeleta	F. pil 2025 (2025-26)	1.487,55 €
Ascensores Arga	F. 11240	203,28 €
Jesus M ^a Alcasena	F. 33	129,47 €
Hostal Betelu	F. 87575 San Miguelen bisita	545,80 €
Accesorios Guerrero	F. material erosketa	60,38 €
Urzubi	F. materiala	268,35 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. uraren kontrola apirila	90 €
Goiener	F. eskolako apirileko argia	675,06 €
Ducha ya	F. dutxa jartzea	3.394 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 22/2025	157,30 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 23/2025	300,08 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 24/2025	94,38 €
Codisna	F. 25.181	199,65 €
Taxilon	F. apirileko mugikortasuna	124,30 €
Ofico	F. apirila	94,32 €
Baiza motor	F. materiala	7,60 €
Iraola Arteta	F. fosa septikoen garbiketa	972,05 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Kide	F. apirileko Aholkularitza	215,99 €
Maite Garcia Satrustegui	F. apirileko bazkariak	533 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. materiala	50,83 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. apirileko garbiketa produktuak	20,55 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. martxoko janaria	69,73 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. apirileko janaria	32,62 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. martxoko garbiketa produktuak	30,35 €
Angelines Carrillo Ruiz	f. A9/2025	57,05 €
	DENETARA:	18.179,79 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko zortzi eta erdiak direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.